



AITA POLIKARPO IRAIZOZKOA
(1897-1980)

Egilea:

JESUS GOLDARAZ LIZASO

ULTZAMARRA JAIOTZEZ

Iraizotzen, Ultzama haraneko herrian munduratu zen Aita Polikarpo Iraizozkoa 1897ko urtarrilaren 31n, berak esaten zuenez «orduan euskaldun hutsa zen herrian».

Agustin Zarranz Bermejo zuen bataio izena, baina, urte haietako ohiturari jarraituz, fraide kaputxinoetan sartu zelarik eta profesia egiterakoan, sorterriko izena hartu eta aita Polikarpo Iraizozkoa bilakatu zen. Dena den, liburu eta idazkietan Iraizoz'tar edo Iraizoz'ko Polikarpo Aita, Iraizoz Aita eta Iraizozko Polikarpo Aita formak ere erabiltzen zituen.

Bederatzi senideetan zazpigarrena. Aita Migel Zarranz zen Arakilgo Errotzen jaioa eta ama, berriz, Priska Bermejo, Orba ibarreko Puiukoa. «Aita herriko maisua nuen, baina bost urte nituela hil zitzaidan eta gero eskola gutxi ikasi nuen».

Garai hartako familia ugari baten estutasuna zela eta, joan behar izan zuen txiki-txikitatik «artxaiko» herriko etxe batera; horrela deitzen zitzaion Ultzama aldean orain dela gutxi arte

hainbeste mutikorentzat ohiko izan den eginkizun horri. Horrela ibili zen, bada, Agustin ardiak zaintzen Iraizozko soro, larre eta aldapetan. Ez da, beraz, harritzekoa berak idatzi eta arestian aipatu duguna: «eskola gutxi ikasi nuen». Eskola eta hezkuntza ez zen gaur bezain beharrezkotzat jotzen eta ez zitzaion gaur eguneko garrantzirik ematen.



Agustin Zarranz Aita Polikarpo Iraizozkoa (1897-1980).



Izaizozko eliza,
herriaren kaxko-
-kaxkoan.

Geroago, ikasten hasi zenean, gogoan zuen zenbat traba sortu zizkion ikasketak hizkuntza arrotzez egin beharrak. Arrazoi horrengatik, gaztelaniaz mintzatzeko zeukan zailtasunagatik, bota omen zuten Iruñeko Seminariotik «motza» zela eta deus gutxiz jabetzen zela argudiatuz. Ez zekiten zer ari ziren. Ez zioten antzik eman mutiko haren gaitasunari; esku artean izaki eta ez aintzat hartu berehalako emaitzak ematen hasiko zen landugabeko altxor hura. Orduan, Altsasuko kaputxinoetara jo behar izan zuen.

Bere sorterri eta haraneko izaera lasai, baketsu eta bizitasunez betetakoa erabat barneratua zeukan. Ezin aipatu gabe utzi bere sorterriari, Iraizotzi, erakutsi zion maitasuna eta atxikimendua. Inon baino hobeki adierazten du urrutitik idatzi zuen *Ori'ko Txoria* olerkian:

Zeruan eder ilargia
izarren aitzindari;
Aren ondoan artizarra
goizean da nabari.
Aiek zerutik beira daude
nere sorterriari:
ni berriz basabazter ontan
nigarretan naiz ari.

Zoritxarrean lekutu naiz
jaio nintzen txokotik.
Zoriona bilatu naiez,
atsegin ondotik;
aunitz erritan ibili ta
leiatu naiz gogotik;
baina biotzak eztu onik,
nion eztu gozorik.

Txoriak ere kantatzen du
baratzeko esian:
«Ori'ko txoria laket da
beti Ori-mendian»;
uda ta negu, gau ta egun
an bizi da lorian.
Nik ere bizi ta il nai dut
sortu nintzen tokian.

Oi erri maitea, zu zaitut
orai nere gogoan;
zure izen xoragarria
maiz dadukat agoan;
gauzez ere zutaz ari naiz
beti amets gozoan:
Jaunak berriz jarriko al nau
laster zure altzoan!

Jatortasuna dario olerkiari.
Herrimina, Iraizozmina, bada, bizipen
iraunkorra zen gure gizonarengan.
Baina, aldi berean eta beste zentzu
batean, herriak, sorterriak mina ere
ematen zion. Euskarak jasaten zituen
oztopoak ikusirik eta jaio zen herri eta
eskualdean urtez urte euskararen
galeraz oharturik, kanpotik etortzen
zen aldioro bere bihotz sentibera
mindurik agertzen zuen.

IKASKETAK ETA APAIZGINTZA

Herria utzirik, Altsasura joan zen
kaputxinoen komentura hamaika urte
zituela 1908. urtean. Han latina eta
humanitateak lau urtez burutu zituen.
Bere Ordenean oparo eta estilista
izanen zen latinista hark lehendabiziko
klase haietan latinezko hastapenari
ekin zion.

Zangozako bidea hartu zuen 1912.
urtean eta han egon zen 1914. urtea
arte. Bertan nobiziatu urtea eta
latinezko bosgarrena egin zituen.
Jadanik bere bokazioa ontzen hasia
zen. Nobiziatuaren gogoeta urte
hartan Polikarpo izen berria eta,
deituraren orde, jaioterriarena,
Iraizozkoa hartu zuen.

Zangozatik, hurrengo urratsa:
Hondarribia. Itsas bazterreko herri
xarmant horretan apaiz ikasketetan
garrantzi handia zeukan filosofia egin
zuen. Tarte horretan gauza bitxia
gertatu omen zitzaion. Nonbait
euskara atzenduxea eta baztertu
xamar eduki eta, bere hitzetan,
«bidenabar euskera berriz ikasi eta
idazten hasi». Baita berehala emaitzak
ematen hasi ere. Izan ere, iritsi
zaizkigun bere lehenengo olerkiak
Hondarribiako egonaldikoak baitira.
1916koak hain zuzen ere: «Euskera
berriz ikasten hari (sic) nintzelarik
Hondarribian». Hemeretzi urte zituen

4

eta kaputxinoek Iruñean ateratzen zuten *Irugarrego Prantziskotarra* hilabeteroko aldizkarian argitaratu zituen. «Hondarribian euskera berriz ikasten ari nintzela agertu ziren» aipatu zion Polikarpok Berri-Otxoa lasalletar idazleari bere lanari buruz egin idatzian.

Ez zuen Hondarribian denbora alferrik galdu. Literaturan sartze horrez gain, bere burua beste gaietara ireki eta zabaldu zuen eta etorkizunean



Lekarozko eliza, kanpotik.

hainbeste hizkuntza menperatuko zituen gizonak, hizkuntzak ikasteko gaitasun horri esker, Hondarribian berean, alemaniera ikasi zuen, berak dioen bezala «aleman gramatika bat eskuratu ez dakit nola eta hizkuntza hori ikasi nuen nere kabuz».

Azkenik, apaiz bidean, Iruñea izanen da ikasgune. Errotazarren kaputxinoek duten San Pedro Extramuros komentu



Aita Polikarpo, 55 urterekin.



Lekarozko eliza, barrutik. Aita Polikarpok sermoi asko egin zituen eliza.



Samariaren elizan, Moisesen legeen pergaminoen ondoan, 1964-VI-22.

6

zaharrean teologiako ikasketak egin zituen. Han bertan apaiztu eta meza berria eman zuen 1921ean eta hurrengo urtean Suitzara, Zürich-eko unibertsitatera joan zen Euskaltzaindiaren eskutik Filologia Erromanikoa ikastera. 1923an Iruñera itzuli zen berriz Arga ibai ondoko komentura.

Zazpi bat urte eman zituen han apaiz eta idatz-lanetan eta Belate hego aldera dauden herri anitzetan sermoiak predikatu. Lan horretan bereziki Larraun, Basaburua, Ultzama eta Esteribarko herriak ibili zituen.

Garai horretan, *Iruugarrengo Prantziskotarra* eta *Zeruko Argia*-n idatzi zuen, Azkuek moldatutako *Erizkizundi Irukoitza* burutzeko herriz herri hitz eta esapideak bilduz.

Lekarozko bidea hartu zuen 1930ean. Baztanen eman zituen gerra zibileko urteak, beste hainbat kaputxinok alde egin behar izan zuten bitartean. Bera ez zuten bidali, baina arriskuan egon zen. Ez zuten bidali Lekarozko errektoreak indar egin zuelako. Lekarozen haren beharra zuten. Lekarozko ikastetxean latina,

grekera, alemana eta beste hainbat gaitako irakasle izan zen eta, hori ez ezik, inguruko herrietan predikatzen ibili zen oso gogoko zuen Baztango euskaraz, «hasi Zugarramurditik Beraraino» berak dioenez. Hogei urte bete zituen lan horietan. Artean, astia hartu zuen liburu batzuk plazaratzeko eta alemanetik gaztelaniara itzulitako zenbait liburu argitaratzeko.

Erromara 1950ean bidali zuten. Ordenaren Idazkari Goren edo Nagusi izan zen, baita latinezko idazle ere. Lehenengo «scriptor latinitatis» izan zen. Erroman urte anitz eman bazituen ere, aski ongi ulertzen dira bere hitz hauek: «Asko idatzi nuen latinez, gaztelaniaz, italieraz... Baina horregatik ez nuen euskera bazterrerat utzi» Erromako egote hartakoak dira, esate baterako, bere hamalaudun ospetsuak.

Erromako bidea ere bere euskarazko lan guztiekin hartu zuen: «Neure euskerazko lantxo guztiak: itzaldi, neurtiz, iztegi-gai ekarri nizkian onara, astiorduetan lantzeko eta apaintzeko».

Erromatik 1972an itzultzean Lekarozen eman zituen hondar urteak, 1980ko apirilaren 5ean hil zen arte.



Arreba Josefa eta berorren
seme-alabekin.

7



Burlatan, bere familiarekin.



EUSKARAREN BIDE GILE

Hagitz ongi doakio Iraizozko Aita Polikarpori atal honen izenburua. Hori izan baitzen, urratzaile euskara arloan. Begikoa zuen euskara, estimu handikoa. Ahalegin eta gorespen hoberenak eskaini zizkion, berak, 1977an, hitz hauek idatzi bazituen ere:

Umilki aitortu behar dut agerian dagoena: ez dut nire bizitza luzean burrunba handia ateratzeko haineko lanik bururatu euskararen alde. Ez nezaiokeen euskerari nahiko nukeen bezainbat denbora eman, ez nuen euskera nahi bezain sakonki eta hetatuki ikusteko eta ikertzeko egokierarik. Halaz ere, badirudit euskeraren alde zerbaitño egin dudala, era nuen guzietan gogotik mintzatuz, idatziz, predikatuz; hots! besterik ez bada, euskerari onerizteko eta eusteko etsenplu ona emanez.

Nafarroako euskara landu zuen hizkuntzalaria izan zen batetik, olerkari bestetik eta baita itzultzaile ere. Predikuak, batez ere, baztaneraz egiten zituen. Ultzamako eta Baztango euskeraren artean ez dago ia ezberdintasunik. Entzun ziotenek diote

izugarri polita zuela euskara. Mitxelenak hauxe dio : «Aita Iraizoz-ek erabili ohi zuen nafar kutsuko euskara» (*Iker 2*, 446).

Kaputxino nafar anitzek bezala –Damaso Intzakoa, Jorge Riezukoa...– izugarrizko garrantzia izan zuen 1936ko gerra aurreko urteetan euskal gaiek izan zuten jorratze hartan eta esaten ahal da beraiekin euskalgintzak lorpen handiak erdietsi zituela, gero kostata lortuko zuen maila eduki zuela.

Gerra etorri ondoren, kaputxinoak gaizki ikusiak izan ziren eta horietako anitzek atzerrira joan behar izan zuten. Desegin zen lan loriatsua eta artxibo asko galdu edo ezkutatu egin ziren, betiko desagertuko ziren beldurrez. Produkzioak etena izan zuen eta inoiz ez zuen atzera berreskuratu aurreko urteetako tentsio hura. Aita Polikarpo izan daiteke nafar kaputxinoen belaunaldi oparo horretako izar dirdiratsuenetakoa.

Iraizozkoaren lan jorriaz aparte, hainbat autorek goraiatu dute bere euskararen txukuntasuna. Luis Mitxelenak *Historia de la Lengua Vasca*-n honela zioen haren

hamalaudunei buruz: «Autore alemaniar erromantikoen itzulpen finak zor zaizkio, eta azken aldian, Irisarri ezizenaren azpian, hamalaudun sail perfetoa, agian euskaraz idatzi diren onenak».

Olerkari bezala, Aita Santi Onaindiak dio «samur eta sen aundikoa» dela (*Mila euskal-olerti eder*, 992).

Erabiltzen duen euskarari buruz Aingeru Irigaray-k aipamen hau egiten du: «El Padre Iraizoz es uno de los más finos escritores del euskera y conocedor de los giros populares y graciosos modismos de nuestro pueblo. (...) El euskera que emplea es hermoso y popular; no solo es inteligible, sino que su lectura es un placer» (*RIEV*, 1935, 387-388 orr.).

Eta Lauaxetak: «Aita Iraizoz, kultura gorako ertilariak (...) egiazko euskal bitxiz mukurutu gaitu» (*Euzcadi*, c. 1936). Eta beste hau ere: «Iraizoz'en lanok zoragarriac dira».

Euskalki guztietako hitz eta esamoldeak baliatu zituen eta garbizalekeriatik ihes egin. Nafarrarekin batera gipuzkera eta lapurtera erabili zituen. Beraz, euskara gozo eta samurra, jatorra eta erraza darabil, zeharo ulergarria. Batek baino gehiagok berreskuratu du ahantzixea zeukan euskara *Jesukristoren Bizitza*-ko prosa leun orekatua dastatuz. Bereak dira hitz hauek liburuari hain harrera ona egin zitzaiola ikusiz: «Zenbait euskaltzalek eta euskal idazlek aitortu izan didate, erdi ahantzia zeukaten euskera, liburutxo hortan berritu zutela».

Bere izenarekin batera, *Ursuya*, *Urtsuya* eta *Irisarri* ezizenak erabili zituen bere lanetan. Azken ezizen hau bere laugarren abizenarengatik ote?



EUSKALTZAIN

Hasmentatik erreparatu zion Euskaltzaindiak Iraizozko Polikarpo Aitaren lan gaitzari. Gazte-gaztetatik hizkuntzalaritzan fruitu hain ugariak eman behar zituen lorea urratzen hasia zen.

Esana dago apaiztu bezain laster, Euskaltzaindiak emandako beka baten bidez, Filologia Erromanikoa estudiatu zuela Suitzan. Orduko olerki batzuk

10



Aita Polikarpo, Suitzan, Filologia Erromanikoa ikasten.

argitaratuak zituen eta baita itzulpen batzuk eginak ere. Segida ederra emanen dio hurrengo urteetan euskararen aldeko bere ekarpen baliotsuari.

Gerra zibilaren ondoren, denok dakigun arrazoiarengatik, Euskaltzaindia ez zegoen noski bere goi mailan. Doi-doi zirauen. Une zail haietan gure kaputxinoaz oroitzen dira Akademiarako ziztagarri suertatuko zelakoan. Lekarozen irakasle zela, Azkue euskaltzainburuaren gutun bat hartu zuen 1941eko apirilaren 14an. Azkuek garbi aski azaltzen dio euskara bultzada indartsuaren beharrean dagoela, Euskaltzaindia berpiztu behar dela eta haren beharra duela. Eta, horretarako, euskaltzain izendatu zuela. Onartuko zuelakoan, Aita Polikarporen baiezko erantzunaren zain geratu zen. Baina, ez zen Azkuek uste zuena gertatu. Ez zuen izendapena onartu, nahiz eta berari begi emana izatea zinez eskertu. Poztu zen berpizte asmo horretaz «gure hizkuntza gaixoari diodan maitasunaren handiaz».

Ezezkoaren arrazoiak aurkeztu zizkion. Hobeki, arrazoi soil bat. Ordenarena. Kaputxinoen Ordena une garratzak pasatzen ari zen, anitz sufritzen ari zen zenbait kidek, hau da, zenbait fraidek «gure hizkuntza,

edestia, folklorea etab. landu dituztelako». Ulertuko duela esaten dio Azkueri, Ordenaren Nagusiek ez dituztela begi onez ikusten eta ezin duela pausu hori eman Nagusien baimenik gabe, «obedientziaren seme naiz eta uste dut haien borondatea agertzen dudala zure eskaintza onartzen ez badut».

Egia esan, esperientzia txarrak baitaratuak zituen Aita Polikarpok Lekarozen bertan. Komentukide batzuk kanporatu izanak ziren euskal munduan gogoz lanean saiatzeagatik. Bestalde, euskal aldizkari batzuk, gerra ondoko giro ilun hartan, desagertu ziren. Honek guztiak hurbiletik harrapatu zuen Aita Polikarpo, anitz mindu zuen eta lur jota eta beldur zen. Hona hemen Euskaltzandian ez sartzeko arrazoirik

nagusiena: «Espero dut egoeraz ohartu zarela eta nere ezezkoa ulertuko duzula». Azkuerengandik gutuna jaso zuenetik aste bete ez zen igaro eta hauxe Aita Polikarporen erantzuna. Eta horretan gelditu zen asmoa. Ohar gisa, azpimarratzekoa da bien arteko gutunak gaztelaniaz idatziak daudela. Hori ere, seguraski, Euskaltzaindiaren egoera zail haren adierazle.

Dena den eta arazoak arazo, euskaltzain oso izatera iritsi zen 1968ko abenduaren 4an. Berak azaldu zuen idazki batean hartutako erabakia: «Zilegi bekigu eranstea, euskararen inguruan burututako lanengatik, hizkuntza horren akademiko izan zela izendatua». Eta akademiko lanetan jardun zuen heriotza arte. Lehenagotik, 1930ean, euskaltzain urgazle izendatua izan zen.

11

Lekarozko ikastetxea, 1891n sortua.



12

LAN LITERARIOA. SAILKAPENA

Esaten ahal da, inongo zalantzarik gabe, Aita Polikarpo Iraizozkoa Nafarroak XX. mendean izan duen idazle emankorrenetakoa dela. Idazle nekaezin honek emaitza literario zabala utzi digu. Gai anitz jorratu arren, bere ekarpen literarioa gai erlijiosoetara mugatzen da gehienbat, bereziki prosaz edo hitz lauz idazten duenean.

Literaturazko bi estiloak, hitz lauarena eta olertiarena, erabili zituen euskararen lanetan, bietan anitz idatzi zuelarik. Hitz neurtuan 15 bat mila lerro utzi zituen idatziak: «Neurtitzetan eta hitz laxoz asko idatzi dut euskeraz nere bizitzean, neronek ere ez dakit zenbat. Nere bizibideari dagokionez, beti ez bada, maizenik erlijiozko gaiak erabili ditut».

Garai hartako euskal aldizkarietan argitaratu zuen lanaren zati handia, bereziki Iruñeko kaputxinoen *Iruigarrengo Prantziskotarra* aldizkarian eta *Zeruko Argia*-n. Aldizkari honi buruz zera esaten du: «Hau ere



Yesu-Kristo gure
Yaunaren biziaren azala
eta lehen orria.



Iruñean sortu eta argitaratu genuen. Hortan idatzi nuen nik gehienik, lehen zenbakitik hasi (1919ko urtarrilean) eta azken zenbakiraino (1936ko uztailen). Urte hoietan hilabete gehienetan agertu zen nere lantxoeren bat, eta zenbait hilabetez bat baino gehiago ere bai».

Baina beste aldizkari hauek ere –*Olerti*, *Yakintza*, *Euskal Esnale* eta *Euzko Gogoa*– argitaratuak ikusi zituzten Aita Polikarporen bestelako lan eta gaiak: «Nere idazki gehienak banaturik daude hainbeste aldizkaritan».

Kronologikoki liburu hauek argitaratu zituen: *Urte guziko Igande eta Jaiegunetako Ebangelioak* (Iruñea, 1933), *Yesu-Kristo gure Yaunaren Bizia* (Iruñea, 1934), *Arimaren Zuzenbidea* (Donostia, 1952). Itzulpen sailekoak dira. *Gurutze Bidea* (Iruñea, bi aldiz argitaratua, 1957 eta 1958an). Eta, azkenik, *Kristo gure Jauna eta andredena Maria* (Bilbo, 1978), hamalaudunegina. Poema liburu honek Felipe Arrese Beitia Saria irabazi zuen, Bizkaiko Aurrezki Kutxak eta Euskaltzaindiak eratu.

Idazle honen lan literario hedatsua sailkatzerakoan, atal nagusi hauek azpimarratuko genituzke:

OLERKIAK

Hamalaudunak. Beren kalitatea Luis Mitxelenak laudatu eta goretu zuen. Batez ere, *Euzko Gogoa*-n eta *Olerti*-n agertu ziren Irisarri izengoitiarekin. Baita *Zeruko Argia*-n ere. Aldizkari honetan agertu zen lehenengoa 1925eko abenduan: *Artxueta mendia*. Bere izenarekin, berriz, aipatutako *Kristo gure Jauna ta andredena Maria* liburuan bertso anitz ageri da.

Poemak asko lantzen zituen, lehenengo idazkia behin eta berriz eraberrituz, lan ederra lortu arte. Hamalaudun batzuk musikatuak izan dira edo, hobeki esanda, berak moldatu zituen musikari egokitze eta horretan ere maisutasuna erakutsi zuen.

Salmoak. Hitz neurtuz zinez lan ikaragarria egin zuen salmoak euskaratzerakoan. Bibliak 150 salmo ditu eta guztiak, 9 izan ezik, euskarara itzuli zituen.

Gainerako olerkiak. Olerki hauetan gai desberdinak erabiltzen ditu, erlijiosoak eta bestelakoak. Trebe agertzen zaigu olerkari bezala, bertsoak ongi ontzen dakiena.



Kris to gure Jauna ta andredena Maria liburua.

HITZ LAUA EDO PROSA

Arestian aipatutako liburuak daude hitz lauz idatziak, horien artean Jesukristoren Biziarena, beretzat begikoena eta gehien irakurria izan dena.

Homiliae dominicales, hau da, prediku eta sermoiak. Lekarozko komentuko elizan eta zenbait herritan igande eta besta egunetan predikatu zituenak. Gehienak Baztango euskaran moldatuak. Aita Polikarpok berak 1971ko otsailaren 27an utzi zuen agiri batean *homiliae dominicales* deitu zuen sailean bildu zituen guztiak. Ia igande guztietakoak agertzen dira eta, bestalde, igande eta besta zenbaitetarako homilia bat baino gehiago daude.



Lekarozko liburutegia, hamaika ordu sartu zuen hemen Aita Polikarpok.

ITZULPENAK

Arlo honetan ere nabarmendu zen. Latinetik, bereziki, bertso anitz itzuli zuen, horietan agerikoenak liturgiako himnoak direlarik. Baina beste mota batzuetako bertsoak ere itzuli zituen latinetik.

Alemaniko poeta erromantikoak gogoko zituen. Horien olerki anitz euskaratu zuen.

Hauetz gain, nahiz eta urriagoak izan, italiara, frantsesa, grekera eta katalanetik hartu zituen bertsoak euskarara aldatzeko.



Lapuren menpean Aita Polikarpok euskaratutako Txinako ipuina.

IKERLANAK

Zabala da Aita Polikarpo Iraizozkoaren ikerkuntza lanetako ekarpena ere. Aipagaien artean:

Ezagunak dira oso Errioxako Donemigilia monastegiko esaldi ospetsu hauek: *Izioqui dugu guec ajutuezdugu*. Euskaraz idatzi diren lehenengo esaldiak. Seguraski, X. mende erdialdekoak. Testu horren esanahia, ikertzaileen arabera, zaila da interpretatzeko. Aita Polikarpo saiatu zen esaldi horiek ikertzen eta bere iritzia ematen. *BAP* (1951) aldizkarian esaten du: «*Izioqui*. Z hori tz baldin bada, *itzeuqui* izango litzateke, Leizarraga-k bi aldiz agertzen duen aditza: -tzat eduki, -tzat jo, -tzat eman, ets(i) esanahiarekin».

«Guec ajutuezdugu» esaldia aztertzerakoan ez du Menendez Pidalek eta bertze ikertzaile batzuek ematen dituzten azalpenak onartzen. Mitxelenaren *Textos Arcaicos vascos* liburuan, 43 orrian, hagitz ongi agertzen dira autore horien aurkako Aita Iraizozkoaren arrazoiak eta berak proposatzen duen aterabidea.

Nafarroako hiriburuaren izenari buruz, *Nombre vasco de Pamplona: Iruñea, Iruña, Iruñe?* (FLV, 35-36, 1980) lanean azterketa sakona egin zuen, zein hautatu behar den ikertuz.

Lizarraga Elkanokoaren hiztegia eta XVIII. mendeko euskal bertsoei buruzko lan mamitsuak burutu zituen.

«Verbo vasco por manar, fluir, erion ala jario» gainean lan interesgarria.

Hitz biltzaile saiatua izan zen. «Nafarroako hitz-mordoska bat bidali nuen Euskaltzaindira aspaldi», dio.

Euskera eta *FLV* aldizkarietan plazaratu zituen gehienbat ikerketa lanak.

LAGUNTZAILEA

Euskarazko lanetan ari ziren adiskide batzuei eskertzeko moduko laguntza eman zien. Adibidez:

Naparroa-ko Euskal-Esaera zarrak liburuaren egileari, Intza´r Damaso Aitari lagundu zion, bai liburu osatzen, bai inprentako huts egiteak zuzentzen. Aita Polikarpok, gainera, liburu honen aitzinsolasa egin zuen izenburu honekin: «Liburu onen egilleaz lau itz».



Larrañaga gotzain misiolariarekin, Olano gotzainarekin eta aita Mauro Elizondo beneditarren abad nagusiarekin batera Francoren garaiko torturak salatu zituen.



Polikarpo kaputxinoen idazkari nagusia, Juan XXIII Aita Santuarekin eta Olano gotzainarekin eta Elias de Labiano eta Santiago de Goizueta kaputxinoekin.

Donostia, Elduaien eta Olazaran musikagileen soinuei egokitutako testuak prestatu edo itzuli zituen. Aita Polikarporen hitzetan: «Nere laguntza hau izan da: soinuen hitzak edo letrak xuxentzea, argitzea, txukuntzea –letra berriak ontzea– beste hizkuntzetakoak itzultzea euskeraz ere kantatzeko moduan, etab.»

Himno de Navarra a San Francisco Javier kantuaren euskarazko itzulpena berak egin zuen. Jakinaenez, ereserki honen musika Joaquin Larreglarena da eta letra, berriz, Alberto Pelairerena. Aspaldiko

itzulpena da, 1922koa. Kantuaren hasiera: «Gora dezagun guztiok».

Nafarroako Elizaren Orduen Liturgiarako euskal irakurgaiak prestatu zituen.

Orain arte esandakoa, Aita Polikarpok euskararen inguruan, besteak beste, egin zuen lanari dagokio. Hitz batez esateko, benetan lan eskerga, gaitza, zabala. Berak maiteena zuen hizkuntzan idatzia, euskaran hain zuzen ere. Aipatu duguna horren erakusle da, lantxo honetan ezinezkoa baita idatzi zuen guztia aipatzea.

Aparte gelditzen dira beste hizkuntzetan burutu behar izan zituen lanak. Batzuk aipatzeagatik: Ordenaren Idazkari Nagusiari zegozkionak, kaputxinoen aldizkarietan idatziak, Eliza Osoko meza-liburuko irakurgaiak berraztertu eta bere Ordenako santuen Ofizioak prestatu zituen, eta abar eta abar. Lan hauetarako maizenik erabili zuen hizkuntza latina izan zen. Baina ez gara honetan sartuko, hori ez baita gure egitekoa.



Aita Polikarporen Hitz lauzko lanak eta Hitz neurtazko lanak.



Kaputxinoen anaidiko lagunekin, Txileko Araucania, kaputxinoen ikastetxean.

ARGITALPENAK

Aita Polikarpo Iraizozkoaren jaiotzako mendeurrena 1997ko martxoan zela-ta, Euskaltzaindia Iraizotz herrian bildu zen, bere sortetxean hain zuzen ere, besteak beste, omenduaren oroitzapena egiteko. Harrezkeroztik, ultzamar idazle ospetsu hau ezagunagoa bilakatu da Euskal Herria osoan eta, bereziki, ultzamarren artean.

Iraizotzen egindako jardunaldietan, Euskaltzaindiak iraizotzarraren lanak argitaratzeko proposamena plazaratu zuen. Nafar Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak asmo hori gogo onez onartu eta berea egin zuen. Emaitzak begibistakoak dira. Urte hartan berean, 1997an, argitaratu zen *Hitz neurtuzko lanak* liburua, Aita Polikarpo Iraizozkoaren olerkiak biltzen dituena. Liburua haren

olerkigintza osoaren bilduma da. Denetara, 15.000 bertso inguru biltzen dituena.

Hitz lauzko lanak I liburuak 1999an ikusi zuen argia. *Hitz lauzko lanak II* liburuak, berriz, 2000 urtean.

Orain arte egindako argitalpen hauei esker, parada ederra dugu denok nafar idazle emankor honen ezaugarri eta xehetasunak sakonki ezagutzeko.

Ezin aipatu gabe utzi bi izen: Frantzisko Ondarra eta Gregorio Andueza kaputxinoenak. Izugarritzko lana egin dute biek Aita Polikarpo Iraizozkoaren lanak argira ateratzekoan, baita haren lana sailkatzerakoan ere. Mementuz gure esku dauden hiru liburu horien prestakuntza biei zor diegu. Beraiek gauzatu dute inoiz aski eskertuko ez dugun lan handi hori.

19



Jaiotetxean, Aita Polikarpo Iraizozkoari, Ultzamako udalak, Iraizozko herriak eta Euskaltzaindiak, mendeurrenean, ezarritako oroitarria.

GIBELSOLASA

Oro har, hau da Iraizozko Aita Polikarpo euskal idazlearen bizitza eta lanaren laburpena. Orain arte esanetik ageri da euskaltzale fina eta idazle emankorra izan zela lantxo honetan aipatu dugun izen handiko idazle honen literatur tankera.

Aita Polikarpo Iraizozkoaren bi alderdi nagusi horiek inork baino hobeki *Euskara, jalgi hadi plazara* hamalaudunak laburbiltzen ditu. Erroman zegoela idatzi eta 1954an *Euzko Gogoa*-n argitaratu zuen olerki hau izan dadila lerro hauen laburbildumarik aberatsena:

Jalgi hadi berriz kanpora, Euskara,
oi Euskara zahar eta beti guri;
ager hadi garai, errege iduri,
gure mendi, zelai, herri, hiritara.

Ondikotz! luzegi egon haiz plazara
ezin jalgiz etxe-zokoan beltzuri;
hire ume onek negar ta zinkuri,
etsaiek artean irri ta karkara.

Erauntz ezak, erantz doluzko zurdatza,
joan duk (agian betiko!) ekaitza,
zeruan agertu iguzkia diz diz.

Jaik hadi, Euskara, gazte lerdan arrai;
jauntzi ederrenez apaindurik orai
jenden aitzinera jalgi hadi berriz.



Maria Gorettiren amarekin, alaba santu egin zutenean, Erroman, 1950ean.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Jesus Goldaraz Lizaso.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2001eko maiatza

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Argazkilaria: Joseba Olalde

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1691-3 (Obra osoa)
84-457-1694-8

L.G.: BI-1327-01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística